

Bilboko euskaraz

Jon Ander Rojo

Bilbori buruzko disziplinanitzezko symposium honetan ezin liteke falta euskararen gaineko lanik. Lan honek gaurko Bilbok euskararen ezagutzan bizi duen gorakadaz jardutea du helburutzat. Gorakada, euskara batuari dagokionez, zeren bizkaierari bagagozkio, joera guztiz kontrakoa da eta. Gorakada honek, gezurra dirudien arren arazoak sor ditzake. Euskaldun berriak errealitate bakarrez jabetzean, arrotz senti daitezke inguruko hizkerak entzuterakoan, euskararenganako jarrera aldaraziz. Gauza bera gerta dakieke bizkaieradunei, jakina. Gaurregun transmisio biderik nagusienak badauka zeresanik honen inguruan, horregatik irakaskuntzaz ere jardungo dut.

Acerca del euskera de Bilbao

En un symposium transdisciplinar no puede faltar una reflexión sobre el euskara. Analizamos la difusión del conocimiento del euskara en Bilbao, principalmente en su forma de euskara unificado y no tanto en su tradición de euskara vizcaino. Esta nueva realidad puede generar frustración en los nuevos vascófonos por su distancia con los ideolectos circundantes y viceversa a los vascófonos vizcainos frente a los nuevos. Por lo tanto debemos reflexionar sobre las formas de transmisión en general y en particular la que se produce en la enseñanza.

Concerning euskara in Bilbao

A transdisciplinary symposium must necessarily contain a reflection on Euskara. We analyse the diffusion of knowledge of Euskara in Bilbao; we concentrate principally on the form of Unified Euskara and to a lesser extent on the tradition of the Euskara of Vizkaia. This new reality might generate frustration amongst new Euskara-speakers because of the distance separating them from the surrounding ideolects, and viceversa for those who speak the Euskara of Vizcaya with respect to new speakers. We must thus reflect on the forms of transmission in general and on the transmission which occurs in teaching in particular.

I. Sarrera

“*Bilboko euskaraz*” izenburupean idatzi dudan artikuluxka honetan hizkuntzaren gainean diharduten hainbat disziplinak parte hartzen dute. Batetik, soziolinguistikaz ihardungo dugu. Datu estatistikoaren bitartez Bilbok euskararen ezagutzan bizi duen gorakada erakutsiko dut eta, gaur egun, Bilboko berbalduen artean ageri diren euskararen gaineko jarrerak aurkezten ahalegingduko naiz.


Bestetik, psikolinguistikaz be berba egingo dugu. Bilboko ingurugiroan hizkuntza irakaskuntza zelakoa den ikusiko dugu. Era berean, zelakoa izan beharko lukeen zehazteko irizpideak ematen saiatuko naiz.

Amaitzeko, Bilboko ingurugiroari egokitutako irakaskuntza hori praktikan jartzeko egin beharreko pausuak egingarriak direnentz ikusiko dugu. Gainera, ardurak banatzen ahalegingduko naiz.

II. Egoera soziolinguistikoaren deskribapena


Hasteko, esan bezala, datu estatistiko batzuk ikusiko ditugu gaur egungo egoera zelakoa den jakitearren.

Bilbok azken urteotan bizi duen gorakada aipatu dugu arestian. Hori gorakada hori, azken hamar urtetan ehuneko bostekoa izan da, ondoko grafikari ikus daitekeenez:




1986an euskaldunen portzentaia ez zen ehuneko hamarrera iristen eta azken zentsuko datuen arabera, 1996ko zentsuaren arabera, alegia, ehun bilbotarretik ia hamabost euskaldunak dira. Ez da zaila zein den gorakadaren arrazoia igartzea. Ondoko grafikak ederto adierazten duela uste dut.

Euskaldunak
Adin taldeka



Adin taldekako sailkapen honetan ikus dezakegu igoerarik nabariena gazteen artean gertatu dela, eta hori, jakina, eskolari esker gertatu da. Eskolaren garrantziaren ikuspegi orokor bat izatearren, jarraian ematen dudan grafikan datorren urterako umeen matrikulazioaren datuak dauzkagu.

Haurren Aurrematrikulazioa



Matrikulatu direnen erdiak euskara hutsez egin du. B ereduan matrikulatu direnek, ostera, ehuneko hogeita hamarra osatzen dute, A ereduan matrikulatutakoak ehuneko hamaika direlarik.


Beraz, arestian aipatu dugun gorakada datozen urteetan are nabariagoa izango dela esateko arrazoiak baditugu. Horregatik, nik uste dut kantitatearen eztabaidatik kalitatearenera pasa gaitezkeela dagoeneko. Hasiera-hasieratik biak elkarren eskutik joan behar zirela uste badut ere, ez naiz sartuko hori zergatik gertatu den ulertzen saiatzen.

Zelako euskaldunak sortu ditugu orain arte?, zelakoak izan behar dute ondorengoek?, zelan lortuko ditugu euskaldun berri osoak? Hauek dira kalitatearen eztabaidan sartzen garenean egin eta erantzun beharreko galderak. Nik prestatutako lantxo honek horren gaineko lehen hurbilketa baterako balio izango balu, nire helburuak guztiz beteko lirateke.

Eskolak ezagutza mailan aldeko eragina izan duela zalantzarik ez dago, baina ezin da gauza bera esan erabilera mailan izan duenari buruz. Horretan, eskolak ezezik beste faktore batzuek be izan dute eraginik, adibidez, erailera normalizatuta ez dagoen hiri edo inguru batean bizitzeak edota inguru erdaldunean bizitzeak.

Eskola gehienetan erakusten den hizkuntza euskara batua da, beraz, aipatutako gorakada, horri dagokiola uste dut. Zer gertatzen da, orduan, betiko transmisio bidea jarraituta erakutsi izan den hizuntzarekin, bizkaierarekin, alegia? Ondoko grafikan euskara dakitenen banaketa ikusten dugu:

Hizkuntza bilakaeraren tipologia



Euskaldun zaharren kopurua azken bost urteotan jaitsi ez bada ere, nire ustez, hauen ustezko hizkuntza, hau da, bizkaiera, bai. Lehen egokiagoa zen euskaldun hauek bizkaieraduntzat hartzea, gaur egun euskaldun berrien igoe-

ra nabariarekin ama hizkuntza euskara dutenen artean gero eta ugariagoak dira batuadunak. Batua delako aitama euskaldun berriek euren seme-alabei irakasten dietena. Honek erakusten digu, lehen esan bezala, Bizkaiko euskalkiaren ezagutza gutxituz joango dela gure hirian, gure inguruan. Grafika horretan aipagarria da, era berean, bost urteko epean euskaldun berrien kopuruak izan duen igoera harrigarria, ehuneko 4,8tik 8,8ra, hain zuzen.¹

Bi talde horiek, hau da, euskadun zaharrak, bizkaieradunak, alegia, eta euskaldun berriak hurrengo atalaren protagonista nagusiak dira.

Taldeok Bilbo eta inguruetako giro euskaldunean nola jokutzen duten azertuko dugu. Aurkezpen bezala, esango dut, bi talde horietako muturreko jarre-
rek erdarara jotzen dutela bera mugitzen den giroa bezalakoa ez den giroetan, hau da, euskaldun berria giro bizkaieradunean eta bizkaieradunean eta bizkaieraduna giro batuadunean.

III. Gertakarien aukezpena

Ezer esan baino lehen, azterketa sakonago baten beharra aldarrikatu nahiko nuke.

Adituek ondoren azalduko dudanaren berririk badaukatela uste dut, horrelaxe ikusi dut eta erabili ditudan artikuluetan. Hala ere, praktikan, oraindik eginbehar asko dagoela antzematen da.

Arestian esan dugu Bilboko bizkaieradunak eta euskaldun berriak atal honen protagonista nagusiak izango zirela. Ezagunagoa da Bilboko bizkaieradun batzuen jarrera, beraz, has gaitezen hauekin. Beren hizkera baztertuta ikusten dute telebistan, prentsan, kalean eta, garrantzitsuena dena, hezkuntzan ere. Arlo horietako giro euskaldunetan batua da nagusi. Horregatik, gehiengotan bizkaieraduna batua ikastera behartuta dago, hori ez dago txarto, baina bere hizkera baztertu gabe. Beste batzuetan, bizkaieradunak, bere hizkera eta batuaren arteko urrutasunak eraginda errezenera jotzen du, hau da, erderara. Horrelako jarrerak baztertu beharrekoak dira. Horretarako, bakoitzaren hizkeraren gaineko harrotasuna bultzatu behar da. Erreza da hori esatea baina bizkaieradunak zahartzen doazen neurrian zailagoa izango da. Euskara eta, era berean, bizkaieraren etorkizuna datozen belaunaldiengan badago, horiengan bultzatu behar dugu hizkeraren harrotasuna. Hau ere erreza da esaten baina gaur egun gertatzen dena aztertzen badugu eginbehar asko dagoela esango dugui, zalantzarik gabe.

¹ Datu estatistiko guzti hauek EUSTAT-ek emanak dira zentsuko datu guztiak biltzen dituen liburuki eta CD-Room-etan. Umeen matrikulazioari buruzko datuak Euskaldunon Egunkariak eman zituen Hezkuntza Sailak argitara eman zituenean.

Umeek etxetik edo familiatik kanpo daukaten lehenengo hizkuntza espezialitatea eskolan gertatzen da. Bertan, etxeko hizkera ez da aintzat hartzen beste hizkuntzak, batua edota erdararen bat, ikasterakoan. Horretaz aspaldi konturatu ziren euskalgintza eta irakaskuntzaren alorrean diharduten Labayru ikastetxeak eta Derioko irakasle eskolak. Erakundeok 1985an idatzi zuten liburuxka batean² bizkaierak irakaskuntzan izan behar zuen lekuari buruz berba egiten zuten. Era berean, hizkera hori aintzat ez hartzean umeengan sortzen den zihurtasun eza aipatzen zuten. Hauen proposamenari mailakako irakaskuntza deritzo. Aztertu zituzten gertakariak Bilbo baino euskaldunagoak diren lekuetan aurkitu zituzten baina gure hiriarentzat baliagarriak direlakoan nago.

Mailakako irakaskuntza hori umeak dakienetik abiatzean datza. Bakoitzaren hizkera garatu ondoren, hizkera horrek beste bateranzko zubi lanak egingo lituzke. Horrek etxeko edo herri hizkerari behar duen garrantzia emango lioke eta beste hizkerak, batua, adibidez, ikaseko biderik ere. Gaur egun, Bilbon eta inguruetan badira bizkaieraz irakasten duten eskolak eta emaitzak, zentsu askotan, onuragarriak dira. Nire ustez, ama hizkuntza euskara dutenek, hau da, bizkaieradunek mailakako irakaskuntza jaso beharko lukete, horrela, bere hizkeraren harrotasunetik batuaren balioaz jabetuko liratekeelako.

Mailakako irakaskuntza horrek jatorriz bizkaieradunak ez direnentzat be balio du, jakina, baina zail samar ikusten dut horrelako ikas-prozedura hiriko sare publiko osora zabaltzea. Batzuek atzera-pausua dela esango lukete, batuak eskolan duen nagusitasuna zalantzan jarriko litzateke eta. Gure helburua euskaldun osoak sortzea bada, errealitate guztien berri eman behar diegu ikasleei. Euskalkiaren bizitasunetik batuaren balioa irakasten duen irakaspide baten beharra daukagu.

Hemendik aurrera euskaldun berriez berba egingo dugu. Orohar, batua da irakatsi zaien hizkera, eta, alde batetik, onargarria da zeren hori izango da eta gehien entzungo dutena gure inguruan. Baina errealitate bakarrez jabetzean, euskalkiaren errealitatearekin topo egiten dutenean zelan jokatu jakin ezinik aurkitzen dira. Batua eta bizkaieraren arteko aldea hain handia izanik, komunikazio arazoak sortzen dira eta batzuetan euskaldun berria zihurtasuna daukan hizkerara jotzen du, erderara, alegia. Jarrerok erabat baztertu beharrekoak dira. Nire ustez, euskaldun berriei batua irakatsi behar bazaie, zergatik ez irakatsi inguruko hizkeratik hurbilen dagoen batua? Adibidez, zergatik irakatsiko diogu euskaldun berriari ongi, ondo baino lehen edo ederki, ederto baino lehen edo uste, eritzi baino lehen.

Kasu honetarako nik proposatzen dudana batua bizkaieraren berezitasunekin janztea da. Horrela, batua garatzeko baina baita bizkaiera ikasteko auke-

² *Euskarazko irakaskuntza Bizkaian*. Larringan, L. eta beste batzuk. Labayru ikastegia. Bilbo. 1985.

rarik emango genieke ikasleei. Hau, berriz ere, atzera-pausutzat hartuko dute batzuek baina euskaldun horiek osoak bihurtzeko bide egingarria dela uste dut nik.

Gertakarien aurkezpena egin ostean, hurrengo atalean, orain arte egin ditudan proposamenak egingarriak direnents ikusiko dugu. Amaitzeko, proposamenok burutzeko ardura nori dagokion esaten ahaleginduko naiz.

IV. Proposamenen egingarritasuna eta ardurak

Esandakoa laburtuz, hemen proposatu dudana ondokoa da. Batetik, bizkaieradunen irakaskuntza bere hizkeratik abiatzea. Bere hizkera garatu ondoren, baturantz abiatzeko zubi lanak errezagoak izango direlakoan. Gaur egun, horrelako irakaskuntza eskaintzen duen ikastetxerik bada Bilbo eta bere inguruetan. Ardura, beraz, umeen aitama edo gurasoengan jausten da. Hauen esku gelditzen da irakas-modeloa aukeratzea baina esan behar dut askotan informazioa ez dela zehatzegia eta aukeratzeko irizpideak okerrak direla (instalazioak eta abar).

Proposamen hori baliagarria da, era berean, ama hizkuntza euskara ez dutenentzat, hau da, euskara, batua, gehien bat, ikastolan ikasiko dutenentzat. hau da, euskara, batua, gehien bat, ikastolan ikasiko dutenentzat. Baina ez diot egingarri irizten mailakako irakaskuntza hori hezkuntza sare osora zabaltzeari, batuaren aurkakoak bagina hartuko gintuzketelako. Dena den, eta irakasleoi dagokigunez, hizkuntzaren irakaskuntza arautzen duen Curriculumean malgutasun handia dago lekuan lekuko hizkerak eskolan sartzeko³. Honen gainean dihardu Laura Uruburuk 1993an Bilbon burutu ziren soziolinguistika jardunaldietarako prestatutako artikuluan⁴. Bertan, irakaslearen lanaren garrantzia azpimarratzen du Hizkuntza Curriculumak inguru bakoitzari egokitzera. Irakaslearen hizkera, adibidez, ikasleentzako erdua izango da eta hark inguruko hizkerari merezi duten lekua eskaintzen ez badie, ikasleak betiko marka ditzake. Beraz, irakasleok ikastalde bakoitzean gure hizkera eta irakaspenak egokitzeko ardura daukagu. Hona hemen, Lehen Hezkuntzako Curriculumaren Diseinuak dioena:

(OCD, 150): “Ikaslegan beharrezkoa da ikasleek beren ingurunean erabiltzen dituzten barietateak errespetatzea, zeren eta ikasleak erabilitato hizkuntza baliozkoa gertatzen bait zaio normalean dabileneko egoera guztietan. Irakasleak planifikatu egin beharko du lana ikasleak bere adierazpena komunikazioa-egoera sail bariatu batera egokitu dezan.”

³ *Oinarrizko Curriculum Diseinua*. Lehen Hezkuntza. Lehen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritza, Gasteiz. 1992.

⁴ II. Jardunaldiak soziolinguistikaz. *Bizkaiko euskera, bizkaiera?* Bilbao Udala. 1993.

Irakaslearen esku gelditzen da, era berean, euskaldun berriei hizkuntza eredu hurbila irakastea. Arestian aipatu legez, honek bideratuko luke inguruko jatorrizko berbaldun edo hitzunekin komunikazioa bermatzea, erabilera murrizten dute jarrerak baztertuz. Horixe da helburu nagusia, erabilera bultzatzea jarrera baztertzailerak alde batera utziz.

Bibliografía

ERRIONDO, Lore: *Euskal Curriculumuma?* in Jakin 93-94 zk. Donostia. 1996.

LARRINGAN, L.M.: *Euskara batua eta euskalkiak*. in Jakin 76 zk. Donostia. 1993.

LARRINGAN, L.M. eta BESTE BATZUK: *Euskarazko Irakaskuntza Bizkaian*. Labayru ikastegia. Bilbao. 1985

URBURU, L.: *Bizkaiera eskolan*. in II. Jardunaldiak soziolinguistikaz. Bizkaiko euskera, bizkaiera? Bilbao Udala. Bilbo. 1993.

ZUAZO, K.: *Euskalkiak, askatu gabeko korapiloa*. in Jakin 76 zk. Donostia. 1993.